

“Jakingarriak” aldizkariak bere webgunea sortu du

2013/01/19

Gaur egun kide hauek osatzen dute *Jakingarriak* aldizkariaren zuzendaritza, **Elena Lopez de Arana** zuzendariarekin batera: **Oihana Elorza, Iñigo Arteatx, Idurre Alonso** eta **Miriam Txintxurreta**.

Zuzendaritza taldeak **Maite Goñi** irakaslearen laguntza eta aholkularitza jaso du webgunea egiteko. Egin, berriz, **MUK** enpresak egin du webgunea, eta horretarako oinarritu da **Wordpress** plataforman. **HUHEZIK** Eusko Jaurilaritzaren **Hezkuntza sailaren diru laguntza** izan du webgunea egiteko.

Jakingarriak webgunearen helburua da modu sistematikoan eskaintzea euskarazko dokumentu gaurkotuak eta berritzaileak, laguntzeko haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako erronkei, eta erantzuteko etapa bi horietan kokatzen diren ikasle zein profesionalen zalantzei. Baita aldizkaria daraman taldearen eta hartzaileen arteko harremana dinamikoagoa, interaktiboagoa, horizontalagoa eta aberatsagoa izan dadin.

Aldizkariaren sortzea

1985ean sortu zen *Jakingarriak*, **Nerea Alzolak** eta **Mariam Bilbatuak** atera zutenean, fotokopiaz, aldizkariaren lehen alea. Urteetan, EAEko ikastetxe guztietan banatu izan da, eta Nafarroako nahiz Iparraldeko ikastoletan. 1.200 ale guztira. Hezkuntzako profesional askok idatzi dute aldizkarian, bertan ateratako 71 zenbakietan.

